

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2018-10-03

Lekua: RKE

Ordua: 16:30etik 18:30era

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbiztazu

EH Bildu : Arantza Gutierrez Paz

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo Gonzalez

Udal talde sozialista: Josefina García Palacio

ELA: Elvira Lemona Díaz

Berritzegune: Txaro Franco Soria

Gizatiar: Marga Tarazaga Brillas

Alderdi popularra: Susana de Cos Yañez

Presidentea: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaria: Bego García Martínez

Thinking Fadura: Asier Arevalo eta Karitte Alegria

Egon ez direnak:

Mujeres con Voz

Eskuz-esku

Roda

Gai-zerrenda

- Aurreko akta onestea. Azken bilerako akta atxiki da.
- Thinking Fadura. Getxo Kirolakeko langileek parte hartuko dute.
- 2018ko jaien kanpainaren jarraipena
- Azaroak 25

- Ahalduntze eskola
- Bestelako informazioa
- Galderak eta eskaerak

Tkinking Fadura.

Lehenengo Asier Arevalo jaunak hitz egin du Thinking Faduraren izenean, eta modu orokorrean azaldu du Getxo Kirolak gauzatzen ari den parte-hartze eredua Fadurako instalazioak berritzeko. Horrez gain, gobernamentua kudeatzeko etorkizuneko plana ere azaldu du.

Thinking Fadurak genero ikuspegia gehitu nahi du bere proiektuan, eta udalerriko emakumeen elkarteei bereziki eskatu die ahal duten neurrian modu aktiboan parte hartzeko herritarrei zuzendutako taldeetan.

Thinking Fadurak informazio osagarria bidaliko duela adierazi du.

Aurreko akta onestea

Txaro Franco andreari, Berritzeguneren ordezkariari, ongietorria eman zaio. Hemendik aurrera Emilio Martinez jauna ordezkatu du Batzordean. Hala, Berritzegunen aurten berdintasun alorrean gauzatuko diren jarduketak azaldu ditu, besteak beste baterako hezkuntzari buruzko mintegi bat. Aurkezpenak egin ondoren aurreko bileraren akta aho batez onetsi da.

2018ko jaien kanpaina

Berdintasunerako teknikariak 2018ko jaien kanpainaren jarraipenari buruzko informazioa eman du.

Lehenik eta behin esan du aurten ez dela egon erasoengatiko salaketarik jaietan. Horrek ez du esan nahi erasorik egon ez denik, baizik eta salaketarik ez dela egon.

PLANTO logoarekin mosaikoa eraikitzeari dagokionez, paella lehiaketan ezin izan zen grabatu, drona gidatzeko enpresak ez baitzion beharrezko baimena

Aenari eskatu. Gainerako jaietan Algortan, Romon, Portu Zaharrean eta Mesedeetan, mosaikoa erabaki bezala gauzatu zen.

Herritarren parte-hartzea positiboki baloratu da, baita jai batzordeena ere, ekintza programetan jasotzeaz gain, berau gauzatzen modu aktiboan parte hartu baitzuten.

GUKen ordezkariak adierazi du herritarren erantzuna oso ona izan zela, baina grabaketan erabilitako bitarteko teknikoak ez zirela onak izan, ondoren sare sozialetan jarritako irudietan guztiz eraiki gabeko mosaikoa ageri baitzen, eta nahikoa irudi mosaikotik urrun hartutakoak ziren.

Azaroak 25

A25eko kanpainan bi jarduketa egitea proposatu da.

- Beldur Barik programa. Aurten atzeratu egin da BB kanpaina Emakunderekin izandako gorabeheren ondorioz. Horregatik berandu jaso zen, eta herriko lehiaketa gauzatzeko denbora gutxi egon zenez, bakarrik lehiaketa orokorrean parte hartzeko erabakia hartu zen. BB programan zehaztutako adina duten ikasleak dituzten ikastetxeek udalak eskainitako programan parte hartzeko aukera izango dute. Programan hauek gauzatuko dira:
 - o Nerabezaro garaian tratu onei buruzko prestakuntza parte-hartzailea, baterako hezkuntzaren estrategia erabiliz –genero ikuspegia eta interseksionalitatea gehituz–, eraso (hetero)sexistak lantzeko eta prebenitzeko helburuarekin.
 - o Hauei zuzenduta: Getxoko ikastetxeak.
 - o Hizkuntza: Euskara.
 - o Iraupena: 2,3 ordu ikastetxe bakoitzean (eskatzen denaren arabera).
 - o Epeak: Urrian eta azaroan.

- Indarkeriaren aurka egin duten edo indarkeriaren aurka ari diren emakumeak aintzatesteko ekimena. Berdintasunerako zinegotziak adierazi du aurreko bileran onetsi zen bezala, A25 inguruan ekimen bat gauzatu dela ordain eskubidearen esparruan, indarkeria sufritu duten edo sufritzen ari diren emakumeak aintzatesteko. Testu bat, manifesturen bat edo antzekoren bat irakurtzea proposatu da, ekimen ludiko bat antolatzeaz gain.

GUKen ordezkariak antzezpen bat egitea proposatu du, eta horretarako Utopiarekin harremanetan jartzeko aukera planteatu du. Era berean proposatu du omenaldiaz gain, ekimen honek emakumeen aurka gauzatuak indarkeria salatzen balio behar duela.

EHBilduren ordezkariak proposatu du ekimenean eskultura bat jarri daitekeela. Hurrengo urteetarako erreferentzia izango litzateke eskultura hori. Berdintasunerako zinegotziak erantzun du ez dutela aukera hori aztertu, eta udalerrian ez dagoela horrelako erreferentziarik antzeko omenaldientzat. Hala ere, proposamena jasota geratu da.

Bilguneren ordezkariak adierazi du epaileekin edo adingabekoen kontrako abusuekin gertatzen ari dena oinarri hartuta, batera lan egiteko beharra dagoela argi geratzen dela.

Berdintasunerako teknikariak esan du egokia litzatekeela ekimen bat egitea, indarkeria jasaten ari diren edo jasan duten emakumeak omentzeaz gain. Ekimen horren bitartez indarkeria mota hori salatuko litzateke eta horren arrazoiak bistaratuko lirateke, baita hori ahalbidetzen duten eta mantentzen duten mekanismoak ere.

Astebeteko epea ezarri da bileran daudenek ekimen horri buruzko ekarpenak bidaltzeko.

Ahalduntze eskola.

Nahiz eta matrikulazio garaian egon, berdintasunerako teknikariak 2018-2019 ikasturteari buruzko honako datuak eman ditu:

- Aurretiaz 563 pertsonen eman dute izena, aurreko urtean baino 35 pertsona gehiagok
- 325 plaza eskaini dira eta aurreko ikasturtean 279 izan ziren
- 18 ikastaro (aurreko urtean 20). Horietako 2 euskaraz.

- 37 ikasle berri.

Bilguneren ordezkariak adierazi du euskaraz egiten diren ikastaroak eskari gehiago duten beste ikastaro batzuetara hedatu beharko liratekeela, ez bakarrik bertaratzea nagusiki militantziaren arabera duten ikastaroetara. Berdintasun teknikariak erantzun du aurten euskaraz eskainitako ikastaroetako bat gazteei zuzendutako autodefentsa feministakoa dela. Ikastaro horrek urtero eskari asko izaten ditu, eta horregatik eskaini da euskaraz, gazteei zuzendutakoa izateaz gainera.

Hala ere proposamena kontuan hartuko du hurrengo urterako.

Bestelako informazioa

Emakumeek Getxoren historiari egindako ekarpenari buruzko ikerketa egiteko bekaren hurrengo deialdiaren berri eman da. Lan finalista zein izango den erabakitzen duen epaimahaian beti egon da udalerriko emakumeen elkarrekin bat. Parte hartu zuen azken elkarrekin Mujeres con Voz izenekoak izan zen. Azken urteetan epaimahai horretan parte ez duten elkarrekin deialdi honetan parte hartu beharko dute.

Parte-hartzea mezu elektronikoko bidez eskatuko da.

Galderak eta eskaerak

Hurrengo bilera azaroaren 8an egitea proposatu da.

Bilera horretan Euskaraldiko kideak egongo dira, gaurkoan Thinking Fadurakoak egon diren moduan.